



AGINDUA, 2025EKO MARTXOAREN 10EKOA, INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNEKO SAILBURUARENA, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) 2025., 2026., 2027. eta 2028. urteetarako DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua ezartzen duenez, lege horren 2. artikuluan aipatutako entitateek egiten duten dirulaguntza-jarduera alde aurretik planifikatu beharko da, plan estrategiko baten bidez. Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 2. artikulua arabera, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da. Hortaz, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 2. artikuluan sartuta dago, eta, beraz, haren dirulaguntza-jarduera alde aurretik planifikatu beharko da.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, plan estrategikoak honako hauek jasoko ditu: helburuak, lortu nahi diren ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa-iturriak, eta planaren helburuekin lotutako ekintzak zein adierazleak, planaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, bai eta lau urteko indarraldia ere, salbu eta, artatzen dituzten jarduketan izaeragatik, epe luzeagoa behar bada.

Onartu beharreko plan estrategikoa energiaren arloko dirulaguntzen jarduera planifikatzeko tresna bat da, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) ezarri nahi duena eta helburua da onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea edo xede publikoak lortzea, laguntzak emanez. Izaera programatikoa du, eta, beraz, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna dirulaguntza-lerroak praktikan jartzeak baldintzatzen du, ekitaldiko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta, besteak beste.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta Jaurlearitari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua eta lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) emandako eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- «Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) 2025., 2026., 2027. eta 2028. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa» onartzea. Agindu honen eranskinean dago jasota.

Bigarrena.- Energiaren Euskal Erakundearen 2025., 2026., 2027. eta 2028. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgune ofizialean eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren beraren webgune ofizialean argitaratuko da.

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





Hirugarrena.- Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) dirulaguntzak ematean, plan horretan ezarritakoa bete beharko da, eta, nolahi ere, dauden aurrekontu-baliabideen mende egongo da.

Aldian-aldian, plan hori berrikusi ahal izango da Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren agindu baten bidez, plan horren aurreikuspenak dirulaguntzen deialdia egiteko unean dauden baldintza material eta aurrekontu-inguruabarretara egokitzeko, bai eta plan horretan diruz lagun daitezkeen neurri edo jarduketa berriak sartzeko ere. Aurrekoa, EEEren Zuzendaritza Kontseiluak aldez aurretik onartu behar badu ere, edo, hala badagokio, EEEren zuzendari nagusiak, dagozkion eguneratzeak erabakitzeko behar diren ahalmenak eskuordetuta baditu.

Laugarrena.- Planaren indarraldiko urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, planaren betetze-maila ebaluatuko da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.2 artikulua araberaren egiten den dirulaguntza-programaren ebaluazioaren esparruan.

Vitoria-Gasteiz,

MIKEL JAUREGI LETEMENDIA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNeko SAILBURUA

EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2025-2028 ALDIRAKO

Bertsioa	Data	Aldaketen laburpena:	Egilea:	Nork onartua:
1.0	2025/02/05	Lehen bertsioa	Laguntza-arloko arduraduna	Zuzendaritza Batzordea

AURKIBIDEA

- 1.- Aurrekariak
- 2.- Arau-esparrua
- 3.- DPEa aplikatzeko, onartzeko eta eguneratzeko esparrua
- 4.- DPEaren edukia
- 5.- Ardatz Estrategikoak eta helburuak
- 6.- Dirulaguntza-programen laburpena
- 7.- Eranskinak
 - 7.1.- 1. eranskina. EEE 2025-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren laburpena.
 - 7.2.- 2. eranskina. Ardatz Estrategikoak eta Dirulaguntza Lineak: helburuak, ekintzak eta adierazleak
 - 7.3.- 3. eranskina. Ardatz Estrategikoak eta Dirulaguntza Lineak: aurrekontu-konpromisoak

1. Aurrekariak

- I. Energiaren Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dugu, eta bere gain hartzen ditu energia-aurrezpena eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzera bideratutako jarduketak, betiere EAE Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Horri dagokionez, EEEK ekintza ugari garatzea hartzen du orain ere helburutzat Euskadin klima-neutraltasuna beranduenez 2050. urtean lortzeko, **Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean** (aurrerantzean “TEKA Legea”) jasota dagoenez, baita 3E-2030 2030erako Euskadiko Energia Estrategian bildutako helburuak ere. Jarduketa horien artean aipatzekoak dira zenbait laguntza-programa, izan ere, programa horien bidez energia-efizientzia eta energia-berriztagarrien aprobetxamendua sustatu nahi baita jarduera-sektore guztietan, baita mugikortasun jasangarria sustatu ere.

EEEk bere dirulaguntza-deialdien bidez garatutako sustapen-lanaren adibide gisa, azpimarratzekoa da ondoren biltzen diren datuen bidez egindakoa, erakunde honek egindako ahalegin ekonomikoaren eta baliabideei dagokienez egindako ahaleginaren adierazgarri.

URT EA	Deitutako programen kopurua	Indarreko programen kopurua (aurreko ekitaldietan deitutakoak)	Deitutako aurrekontua	Aurrekontu handitua (indarreko programak) (M€)	Aldeko ebazpenen kopurua	Konprometitutako laguntza (M€)
2021	7	8	163,36	43,9	506	38,4
2022	7	5	37,39	64,6	10.382	78,4
2023	4	8	11,50	65,4	7.298	62,9
2024	5	8	16,00	44,9	10.850	88,8

- II. EEEren ohiko plangintzaren eta jardueraren barruan, energia-efizientzia sustatzeko, energia berriztagarriak aprobetxatzeko eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko laguntza-programen deialdiak funtsezko pieza izaten jarraitu nahi du.

EEEren ikuspegi hori garrantzi handikoak diren zenbait egitatek berresten dute, horren ondorioz sustapen-jardueren aurrekontuak igoera nabarmena izan duelarik (aurreko taulan ikusi daitekeenez) deitutako laguntza-programak kudeatzeko.

Zirkunstantzia horien guztien artean, honako puntu hauek nabarmendu behar ditugu:

- i. **Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legea** (aurrerantzean “TEKA Legea”) indarrean hasi izana Euskadin klima-neutraltasuna beranduenez 2050. urtean lortzeko. Ildo berean, eta Europa osorako hartutako konpromisoekin uztartzeko xedez, erdibideko helburu bat ezartzen da 2030. urterako, hau da, negutegi-efektuko gasak % 45 murriztea 2005eko erreferentzia-urtearekiko, bestela esanda, % 33ko murrizketa 1990eko emisioekin alderatuta. Jarduera sozio-produktiboaren deskarbonizazioaren, ekonomia zirkular baterako trantsizioaren eta klima-aldaketarako egokitzapenaren bidez lortuko dira helburu horiek.

Honako hauek lirateke beste egitate aipagarri batzuk:

- ii. Administrazio publikoen eremuan jasangarritasun energetikoaren arau-zutabeak ezartzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea (2019ko otsailaren 28ko 42. zenbakiko EHAA) indarrean hasi izana, energia-efizientziaren aldeko neurrien bultzada, energia-aurrezpena, eta energia berriztagarrien sustapena eta ezarpena finkatuz.

Erreminta finantzario bat eratuko dela ezartzen du lege horrek bere Bosgarren Xedapen Gehigarrian. 100 milioi euroko gutxieneko diru-kopuruarekin eratu zen finantza-erreminta hori, eta lege horren ondorioz toki Administrazioan egin beharreko inbertsioak erraztea du helburutzat. Aldez aurretik finantzaketa jasotzen duten administrazioek jasotako laguntzen itzulketaren bidez birsortuko da erreminta, energia-aurrezpenetik eratorritako itzulketen arabera.

Araudi horren eta aipatutako finantza-erreminta horren fruitu, Euskadiko toki Administrazio publikoaren sektorean energia berriztagarriak erabiltzeko eta energia-efizientziako inbertsioak egiteko aurrerakin itzulgarrien programa –Gauzatu Energia– deitu zuen EEEK 2021eko amaiera-aldera.

- iii. EEEren laguntza-programen xede eta helburuak (energia-efizientziaren sustapena, energia berriztagarrien aprobetxamendua eta mugikortasun jasangarria) erabateko koherentzia dute eta erabat lerrokatuta daude "Next Generation EU" izeneko suspertzearen aldeko aldi baterako tresnaren helburuekin.

Ekonomia eta gizarte jasangarriago bat lortzen laguntzea da tresna horren helburua, digitalagoa, erresilienteagoa, eta gaur egungo eta etorkizuneko erronkei hobeto egokitutakoa.

Next Generation EU tresnaren elementu nagusi gisa "Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa" ageri da, 672.500 milioi euroekin hornitua mailegu eta dirulaguntza eskuragarrietan EBko herrialdeek hasitako erreforma eta inbertsioei laguntza emateko.

Aurrekotik eratorrita:

- Estatu kide bakoitzak bere "Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan" nazionala egin du, eta Espainiaren kasuan ekonomia osoaren eraldaketa egituratuko duten eta EBren agenda estrategikoekin, 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin guztiz lerrokatuta dauden [zeharkako lau ardatzen](#) inguruan egituratzen dena: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, genero-berdintasuna, eta gizarte- eta lurralde-kohesioa.
- 2030erako erreforma eta inbertsioen programa garrantzitsua artikulatzen duten [10 palanka-politikatan eta 30 osagaitan](#) zehazten dira 4 ardatzak, eta EEEri dagokionez III. zenbakiko palanka (Trantsizio energetiko bidezkoa eta inklusiboa) da interes gehien eragiten duena.
- Euskadi 2021-2026 aldiko Euskadi Next Programa onartu da, eta apustu garbia da hori eraldaketa ekonomikoaren eta Euskadiren indarrak areagotzearen alde SEM Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen Europako funtsen erabilera, haien artean nabarmentzekoak direlarik energia berriztagarriak sortzeari buruzko 3. zenbakiko osagaia eta mugikortasun jasangarriari buruzko 4. osagaia.

Aipatutako funtsen, Estatuan zein Euskadin landutako planen eta egindako funtsen banaketaren ondorioz, EEEK honako laguntza-programa hauek kudeatu ditu azken urteetan:

- 569/2020 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, mugikortasun efiziente eta jasangarrirako pizgarrien programa (MOVES II Programa) arautzen duena eta programa horren laguntzak autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzenean ematea erabakitzen duena.
- 737/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, egungo eraikinetako birgaitze energetikoko jarduketetarako laguntzen programa arautzen duena, eta programa horren laguntzak autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzenean ematea arautzen duena (PREE Programa).

- 266/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programak (MOVES III) egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duena.
- 477/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitzeari, eta bizitegi-sektorean sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.
- Abuztuaren 3ko 691/2021 Errege Dekretuaren bitartez arautzen dira lehendik dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketetarako eman beharreko dirulaguntzak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren hiri-arloko birgaitze- eta berroneratze-planaren birgaitzeko eta erronka demografikoko programan barne hartutako erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako energia birgaitzeko programa egikaritzuz (PREE 5000 Programa), baita dirulaguntza horiek autonomia-erkidegoei zuzenean ematea ere.
- Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak, baita garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere, eraldatzeko laguntzak zuzenean ematea onartzen duen azaroaren 16ko 983/2021 Errege Dekretua.
- 1124/2021 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak egikaritzeko autonomia-erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei laguntzak zuzenean ematea onartzen duena.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Turismo Enpresen Energia Efizientziako eta Ekonomia Zirkularreko Proiektuetarako Finantzaketa Linearen 2022ko aurrekontuari dagokion kredituaren lurralde-banaketari buruzko 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren erabakia argitaratzen duen Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko martxoaren 31ko ebazpena.

Laguntza-programa horietan guztietan, EEEK EAEn barruan laguntzak emateko prozeduran agintzeko eta bideratzeko organo eskudun gisa jardun du.

- iv. Errusiak Ukraina erasotu izanagatik EBko Aldi Baterako Esparruan estatu-laguntza gisa landu diren aldi baterako tresnak (2022ko martxoaren 24ko EBAO) eta Estatuari gagozkiola Europako Batzordeak 2022ko ekainean onartu zuen Aldi Baterako Esparru Nazionalaren bidez sartu direnak.

Aldi Baterako Esparru Nazional horretan ezarritakoarekin bat etorritik, eskumeneko agintariak aukera izango dute enpresa eta autonomoek aldi baterako laguntzak emateko, zehazkiago, aldi baterako laguntzak likidezia bultzatzeko eta laguntzeko zenbateko mugatuekin, berme moduan eta subsidiatutako maileguren moduan, betiere Aldi Baterako Esparru Nazional horretan aurreikusitako gainerako baldintzak bete beharko dituztenak, eta gehienbat gasaren eta elektrizitatearen prezio garestiak edo energia-hornikuntzan izaten diren gorabeherak arintzera bideratutakoak.

Honako hauetarako deialdia egin zuen EEEK Aldi Baterako bi Esparruen babesean:

- Laguntza-programa gas naturalaren prezio altuen eraginpeko industria-sektoreko enpresentzat (2022ko uztailaren 28ko 145. zenbakiko EHAA), eta
 - Errepide bidezko salgai-garraio flotak modernizatzeko laguntza-programa (2022ko irailaren 26ko 184. zenbakiko EHAA).
- v. Ekonomia dinamizatzeko, enplegua mantentzeko eta pertsona eta familia kalteberenei laguntzeko, eta horrela, Ukrainako gerraren ondorioei erantzuteko neurrien paketea (Gobernu Kontseiluak 2022ko apirilean onartutakoa), eta Euskadiko Kontingentzia Energetikoaren Plana eta 2021-2026 aldiko Euskadi Next Programan bildutako helburuan, haien artean EEEKen jarduerarekin eta helburuarekin

zuzenean lotutako jarduketak daudelarik. Horri dagokionez, EEEK martxan jarritako sustapen-jarduera berrien bidezko jarduketak egin dira (gas naturalaren prezio altuen eraginpeko industria-sektoreko enpresentzako laguntza-programa, 2022ko uztailaren 28ko 145. zenbakiko EHAA).

- vi. Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea Estatuan indarrean ezarri izana, beranduenez 2050ean emisioen neutraltasuna lortzeko helburuarekin. Horretarako, 2030ean, Espainiako ekonomiaren emisioen guztiak gutxienez % 23 murriztu beharko dira 1990. urtearekiko.

Era berean, 2050ean Espainiako Ekonomia Moderno, Lehiakor eta Klimatikoki Neutroa lortzeko 2050 ELE Epe Luzerako Estrategiak bide bat erakusten du Estatuan beranduenez 2050erako negutegi-efektuko gasen emisioak 1990. urtearekiko % 90 murriztu daitezela ahalbidetzeko, emisioen gainerako % 10a karbono-hustubideek irentsiko dutelarik, eta, hori horrela, neutraltasun ekonomikoa lortuta.

Epe ertainean, Estatuari gagozkiola, 2021-2030 aldiko PNIEC/EKPNI Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuak ezartzen du 2030. urterako helburua energia berriztagarriak sartzeari dagokionez energia-efizientzia % 42 hobetzea dela, energia primarioaren kontsumoa % 39,5 murriztuz, eta negutegi-efektuko gasen emisioak 1990. urtearekin alderatuta, aldiz, % 23 murriztea.

Bestalde, 2021-2030 aldiko PNACC/KAEPN Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionalarekin egindako estatu-plangintzak klima-aldaketaren efektuei erantzuteko ekintza koordinatu eta koherentea sustatzea du helburu nagusitza, betiere klima-aldaketaren ondoriozko egungo eta etorkizuneko kalteak saihesteko edo gutxitzeko, eta ekonomia eta gizarte erresilienteagoak eraikitzeko.

- III. Arau-bilakaera ikusita, baita laguntza-programen kudeaketan hartutako alde aurreko esperientzia eta programa horien egikaritzapen-maila ere, EEEK energia-efizientziako jarduketak sustatzeko eta bultzatzeko, energia berriztagarriak aprobetxatzeko eta mugikortasun jasagarria bultzatzeko bere lana eginez jarraituko du helburu horiek lortzeko funtsezkotzat jotzen diren programen deialdiaren bidez.

2. Arau-esparrua

Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak bere 6.1 artikuluan ezartzen du nahitaez izan behar dela Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat (aurrerantzean "DPE") non identifikatu egingo diren, dagokion erakundearen dirulaguntzei dagokienez, planaren aplikazioarekin lortu nahi diren helburu eta efektuak, haiek lortzeko beharrezkoa den epean, aurreikusi daitezkeen kostuak, eta planaren beraren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetuko duten planaren helburuarekin lotutako ekintzak eta adierazleak, betiere hori guztia aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende utzita. Era berean, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen artikulua horrek xedatzen du plan estrategikoek lau urteko aldia izango dutela.

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak dirulaguntzen plan estrategikoak arautzen ditu 10. artikulutik 15. artikulurainoko tartean. Arau horren 10. artikuluan xedatzen denez, DPEak erabilgarritasun publikoko jardura bat sustatzea, edo interes soziala edo xede publiko bat bultzatzeko helburua duten politika publikoak planifikatzeko tresna gisa eratzten dira. Era berean, planetan bildutako neurriak gainerako Administrazio publikoen politikekin koordinatzea sustatu behar da, betiere beharrezkoa den koherentzia gordez dirulaguntzen bidez garatzen den ekintza publikoaren eraginkortasunik handiena bermatzeko. Azkenik, DPEak, edozein kasutan ere, ekitaldi bakoitzerako zehazten diren politika ekonomikoko eta aurrekontu-egonkortasuneko helburua betetzeko murrizketetara egokitu beharko dira.

Sektore publikoko erakundeen jarduketak dirulaguntza-araudia betez orientatzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dirulaguntzen plan estrategikoak egiteari buruzko 1/2015 Zirkularra onartu du, non plan horiek lantzeko eta onartzeko hainbat neurri biltzen diren.

Plan bat landu da zirkular hori betetzeko, zirkular horrek ezarritako eta Dirulaguntzen Araubidea arautzeko Legean eskatutako edukiarekin, eta baita Dirulaguntzei buruzko Legearena eta Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduarena ere, aplikatzea dagokion horretan.

3. DPEa aplikatzeko, onartzeko eta eguneratzeko esparrua

2025eko, 2026ko, 2027ko eta 2028ko ekitaldietan hasiera batean EEEk ezarri nahi dituen energia-arloko dirulaguntza-lineak biltzen ditu planak.

Laguntza-programa bakoitzaren egikaritzapena amaitzean —zehatzago adierazita, lantzen den azken ebaluazio-txostenean—, balorazio bat egingo da planak duen inplikazioaren eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan bildutako Garapen Jasangarriako Helburuen betetze-mailari buruzko intzidentziaren inguruan.

4. DPEaren edukia

4.1 Eduki formala

Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 12.1 artikulua ezartzen du plan estrategikoen gutxieneko edukia. Honako hauek bilduko ditu bere edukian, besteak beste:

a) Planaren indarraldian ekintza instituzionalarekin lortzea espero den efektua eta inpaktua deskribatzen dituzten helburu estrategikoak, dagozkion aurrekontu-programetan ezarritako helburuekin lotuta egon behar dutenak. Helburu estrategikoei merkatua eraginpean hartzen dutenean, zuzendu nahi diren akatsak ere identifikatu beharko dira.

b) Jarduketa-plana zehazten duten dirulaguntza-lineak. Honako alderdi hauek esplizitatu beharko dira dirulaguntza-linea bakoitzerako:

1. Eraginpean hartutako eskumen-arloak eta laguntzak jasoko dituzten sektoreak.
2. Planaren aplikazioarekin lortu nahi diren helburu eta efektuak.
3. Lortzeko beharrezkoa den epea.
4. Egiteko aurrekusten diren kostuak eta finantzaketa-neurriak.
5. Ekintza-plana, non planean identifikatutako dirulaguntza-lineak praktikan jartzeko mekanismoak zehaztuko diren, eta emakidaren oinarri arautzaileek jaso beharreko oinarrizko lineak eta plana lantzeko egutegia mugatuko diren.

c) Ezartzen diren dirulaguntza-lineei aplikatu dakiekeen jarraipeneko eta etengabeko ebaluazioko araubidea. Horri begira, planaren helburuarekin lotutako hainbat adierazle zehaztu behar dira dirulaguntza-linea bakoitzerako, egoera zertan den jakitea eta dagozkion helburuak betetzeko lortutako aurrerapausoak ezagutzea ahalbidetuko dutenak.

d) Aurreko plan estrategikoen ebaluazioaren emaitzak, non emandako txostenen edukia helaraziko den.

4.2 Funtsezko edukia

DPE hau erabat lerrotatzen da 2030. urterako 3E2030 Euskadiko Energia Estrategiarekin eta funtsezko tresna da Euskal Energia Erakundearen energia-politikaren plangintzarako dirulaguntzen emateari dagokionez eta helburutzat du, besteak beste, energia-efizientziako eta Euskadiko jarduera-sektore guztietako energia berriztagarrien aprobetxamenduko inbertsioak sustatzea, eta mugikortasun jasangarria bultzatzea.

Honako elementu hauek hartu dira kontuan plan hau lantzeko:

- 3E2030 Euskadiko Energia Estrategian 2030erako markatutako energia-politikaren helburuak.

- Eusko Jaurlearitzaren konpromisoa klima-aldaketaren gaineko energiaren erabilerearen inpaktua gutxituko duten jarduketak sustatzeko, Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legean eta Klima Larrialdiko Adierazpenean adierazitakoaren arabera.
- Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea, 2022-2030 aldiko Mugikortasun Elektrikoaren Estrategia berria.
- Aurreko urteetan jarduketak balioetsi ondoren helburu diren interes publikoak, amaitutako laguntza-programa guztien emaitza-txostenen bidez: eskaera kopurua, lotutako inbertsioak, emandako dirulaguntzak, lortutako aurrezpenak, eta abar. Zentzu horretan, EEEren arlo tekniko guztiekin izandako bilerak nabarmentzen dira, emaitzei buruzko gogoeta bat egiteko.
- Intereseko agenteekin (patronalak, enpresa-elkarteak, EUEDEL, ingeniari-entresak, instalatzaileak, mantentzaileak, energia-zerbitzu-entresak, ekipamendu-hornitzaileak, finka-administratzaileak,...) izandako kontaktu eta bileretan bildutako komentario eta aholkuak, publikoak zein pribatuak, betiere energia-efizientziako maila handiago baten lorpenarekin lotuta, eta, energia-baliabide berriztagarrien aprobetxamendu hobea eta handiagoa, EEE historikoki helburu hori lortzearen atzetik dabilelarik. Aurreko urteetan egindako jarduketaren balorazioa egin da, eta aldi berean baliabide ekonomiko nahikoak erabilgarri daudela kontrastatu da planaren indarraldirako.
- EEEk 1982az geroztik horrelako laguntzen programen kudeaketan duen esperientziak, baita inplikaturako sektoreei buruz (industria, garraioa, zerbitzuak, bizitegiak, lehen sektorea eta administrazio publikoak) duen ezagutzak eta sektore horiekin duen etengabeko harremanak ere, egungo teknologiekin lotutakoa barne, objektibotasuna bermatzea ahalbidetzen du subentzionaturako jarduketaren ikuspuntutik zein ezarritako laguntzen intentsitatearen ikuspuntutik begiratuta.
- EEEren laguntza-programen xede eta helburuak (energia-efizientziaren sustapena eta energia berriztagarrien aprobetxamendua) guztiz bat datoz Europar Batasunak 2021eko ekainaren 6an onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin, EEEk organo deitzaile eta espedienteen organo bideratzaile gisa edo hori egiten duenaren erakunde laguntzaile gisa jarduten duen programetan.
- Trantsizio Energetikoaren eta Klima aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearekin helburuekin erabat lerrokatzea.

Edozein kasutan ere, plan honek, bere edukia dagokionez izaera programatikoa duenez, ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta urteko hornidura ekonomikoaren eta planean bertan bildutako laguntzen lineak praktikan jartzearen mende dago planaren beraren eraginkortasuna.

5. Ardatz Estrategikoak eta helburuak

Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legeak esparru juridikoa ezartzen du Euskadin klima-neutraltasun beranduenez 2050. urtean lortzeko, beharrezkoak diren ahaleginak eginez neutraltasun hori 2045. urterako lortzeko:

- Jarduera sozio-produktiboaren deskarbonizazioa,
- Ekonomia zirkular bateranzko trantsizioa.
- Klima-aldaketarako egokitzapena/lurraldearen erresilientzia gehitzea.
- Enplegu duina sortuko duen eta despaketotasunak murriztuko dituen garapen-eredua.

Helburutzat ekonomiaren deskarbonizazioa, lurraldeak klima-aldaketarekiko duen erresilientzia handitzea, eta trantsizio energetikoak eskaintzen dituen aukera sozial, enpresarial eta ekonomikoak aprobetxatzea duten Europa osorako hartutako konpromisoekin uztartzea.

TEKA Legea betetzeko, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Epe Luzerako Ibilbide Orria sortzen ari da; ebidentzia zientifikoaren eta gaur egungo teknologiaren arabera lantzen ari dira, eta klima-neutraltasuna, lurraldearen erresilientzia eta bidezko trantsizioa lortzeko bidea definituko du. Klima-aldaketa arintzeko eta energiarekin lotutako gidalerro eta helburuak, egokitzeko estrategiak, eraginpeko kolektiboak eta bidezko trantsizioa lortzeko neurriak, garapen teknologiko eta enpresarialeko aukerak, eta inbertsioak markatuko ditu Ibilbide Orriak.

2050. urtean klima-neutraltasuna lortzea da TEKA Legearen helburu nagusia, ahal den neurrian beharrezkoak diren helburuak eginez helburu hori 2045 urtera aurreratzeko.

Honako hauek ere **helburu** garrantzitsu gisa biltzen dira:

- **Gutxienez % 12ko murrizketa energiaren azken kontsumoan 2030. urterako, eta % 37ko murrizketa, aldiz, 2050. urterako**
- **2030. urtean energia berriztagarrien parte-hartzea gutxienez % 32 izatea Euskadiren azken energia-kontsumoan.**
- **Berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez % 45 gutxitzea 2030. urterako.**

Lege horren helburuak betetzea ahalbidetuko duten plan, estrategia eta sektore-politiken esparru integratu eta zeharkako gisa ere sortzen ari dira 2030eko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Estrategia.


2016ko uztailan Gobernu Kontseiluak onartutako 2030eko Euskadiko Energia Estrategia (aurrerantzean, "3E2030") indarrean dago gaur egun, TEKA Legearekin lerrotatuta ditu bere funtsezko zutabeak, eta berak definitzen ditu Eusko Jaurlaritzak 2016-2030 aldirako politika energetikoaren arloan dituen oinarriko jarduketa-ildoak.

Lehiakortasunari, hornidura-segurtasunari eta karbono urrikoa izateari dagokionez gero eta jasangarriagoa izango den sistema energetiko bat lortzeko bisioaren barruan kokatzen da estrategia hau, helburutzat 2030. urtea hartuta.


1. 2016-2030 aldirako urtean 1.250.000 tep-ko energia primarioko aurrezpen bat lortzea, 2030ean % 17ko aurrezkiaren baliokide izango litzatekeena. Aldi horretan intentsitate energetikoa % 33an hobetzea ekarriko luke horrek.
2. Energia berriztagarrien erabilera % 126 indartzea 2030. urtean aprobetxamenduaren 966.000 tep lortzeko, eta azken kontsumoan berriztagarrien % 21eko kuota lortzea ekarriko luke horrek.
3. Euskal Administrazio publikoan konpromiso eredugarri bat sustatzea konpromiso horren bidez Administrazioaren instalazioetan 10 urtean energia-kontsumoa % 25 murriztea, Administrazioaren eraikinen % 25ean energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak ezartzea eta, gainera, parke mugikorren eta zerbitzu publikoko flotetan ibilgailu alternatiboak sartzeko ahalbidetuz.
4. Energia alternatiboan % 25eko kuota lortzea errepide bidezko garraioan, petrolioarekiko deslotura progresiboan eta ibilgailu jasangarriagoen erabileran sakonduz.
5. Baterako sorkuntzaren eta energia elektrikoa sortzeko energia berriztagarriek duten parte-hartzea gehitu eta 2015eko % 20tik 2030eko % 40ra igo daitezela lortzea.
6. Enpresen, zentro teknologikoen eta euskal agente zientifikoen lehiakortasuna indartzea, energia-alorrean ikerketa eta garapen teknologiko eta industrialerako lehentasunezko 9 arlo bultzatuz, Euskadiko espezializazio adimenduneko RIS3 estrategiarekin bat etorrituz.
7. Klima-aldaketa arintzen laguntzea urtean negutegi efektuko gasen 3 Mt murriztuta neurri energetikoen ondorioz, eta hori jatorri energetikoko negutegi-efektuko gasen emisioen % 35eko murrizketa da 2005. urtearekin alderatuta.

Eskueran ditugun datuak kontuan izanda, % 31 izan da 2023. urtean 3E2030 Estrategiak izan duen aurrerabide globalaren maila. Energiaren prezioek energia-efizientziako ekintzak geldiarazi dituzte, eta energia berriztagarrien proiektuen mantsotzeak eta petrolioaren deribatuen kontsumo neurrigabeak 2023rako ezarritako helburuak lortzen ez dituen emaitza eragin dute. Estrategian planteatutako bidea arriskuan egon liteke, eta, hori horrela, egokitzea jotzen da laguntza-programa publikoaren bidez 3E2030 Estrategiaren adierazleak betetzera bideratutako jarduketei eman beharreko bultzada sustatzea.

3E2030 Estrategiaren urteko aurrerapen-maila









3E2030 Estrategiaren aurrerapen-maila sektoriala



5.1 Laburpen-taula

Ondoren, 3E2030 Estrategiaren Ardatz Estrategikoak edo ildoak, SEM funtsen osagaiak, GJHak (Euskadi Basque Country 2030 Agendan bildutako Garapen Jasangarrirako Helburuak) eta indarreko edo EEEK deituko dituen laguntza-programak lotzen dituen taula bat aurkeztuko dugu.

Helburuak TEKA 1/2024 Legea	Ardatzak 3E2030	Osagaiak SEM	GJH	EEE laguntza- programa
NEG emisioak murriztea. Energia-efizientzia hobetzea. Energia berriztagarriak sartzea.	11 ildoak. Euskal industriaren energia-lehiakortasuna eta industria-jasangarritasuna hobetzea.	O7: Energia berriztagarriak hedatzea eta integratzea	7: energia irisgarria eta ez kutsagarria 9: industria, berrikuntza eta azpiegitura 12: produkzio eta kontsumo arduratsuak 13: klimaren aldeko ekintza 	Energia-efizientzia, berriztagarriak eta mugikortasun efizientea Emisio gutxiagoko ibilgailuak MOVES III Energia-auditoria integralak ETEetan Autokontsumorako energia elektrikoa sortzea eta kontsumo termikoak elektrifikatzea energia berriztagarriekin
NEG emisioak murriztea. Energia-efizientzia hobetzea. Energia berriztagarriak sartzea.	12 ildoak. Garraio-sektorean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea.	O1: Hiri- eta metropoli-inguruetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatu baterako talka-plana	7: energia irisgarria eta ez kutsagarria 9: industria, berrikuntza eta azpiegitura 11: hiri eta komunitate irisgarriak 13: klimaren aldeko ekintza 	Energia-efizientzia, berriztagarriak eta mugikortasun efizientea Emisio gutxiagoko ibilgailuak MOVES III
NEG emisioak murriztea. Energia berriztagarriak sartzea.	13 ildoak. Eraikinetan eta etxean kontsumoa murriztea eta berriztagarrien erabilera areagotzea.	O2: Etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko plana	7: energia irisgarria eta ez kutsagarria 11: hiri eta komunitate jasangarriak 12: produkzio eta kontsumo arduratsuak 13: klimaren aldeko ekintza	Energia-efizientzia, berriztagarriak eta mugikortasun efizientea Instalazio elektrikoien jasangarriak Renove plana JEan Azterlanak eta auditoriak toki-administrazioetan Gauzatu Autokontsumorako energia elektrikoa sortzea eta kontsumo termikoak

				<p>elektrifikatzea energia berriztagarriekin</p> <p>Energia-auditoria integralak ETEetan</p>
<p>NEG emisioak murriztea. Energia-efizientzia hobetzea. Energia berriztagarriak sartzea.</p>	<p>14 ildoa. Energia-alorrean eraginkorragoa eta jasangarriagoa izango den euskal Administrazio publiko bat sustatzea.</p>	<p>O2: Etxebizitza birgaitzeko eta hiri berroneratzeko plana</p> <p>O1: Hiri- eta metropoli-inguruetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatu baterako talka-plana</p>	<p>7: energia irisgarria eta ez kutsagarria</p> <p>11: hiri eta komunitate jasangarriak</p> <p>12: produkzio eta kontsumo arduratsuak</p> <p>13: klimaren aldeko ekintza</p> 	<p>Energia-efizientzia, berriztagarriak eta mugikortasun efizientea</p> <p>Emisio gutxiagoko ibilgailuak</p> <p>Azterlanak eta auditoriak toki-administrazioetan</p> <p>Gauzatu</p> <p>MOVES III</p>
<p>NEG emisioak murriztea. Energia-efizientzia hobetzea. Energia berriztagarriak sartzea.</p>	<p>15 ildoa. Lehen sektorean baliabideen energia-eraginkortasuna eta energia-aprobetxamendua sustatzea.</p>	<p>O3: Nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sistemaren ingurumen-erlaldaketa eta erlaldaketa digitala</p>	<p>7: energia irisgarria eta ez kutsagarria</p> <p>12: produkzio eta kontsumo arduratsuak</p> <p>13: klimaren aldeko ekintza</p> <p>15: lehorreko ekosistemetak bitza</p> 	<p>Autokontsumorako energia elektrikoa sortzea eta kontsumo termikoak elektrifikatzea energia berriztagarriekin</p> <p>Energia-efizientzia, berriztagarriak eta mugikortasun efizientea</p>
<p>NEG emisioak murriztea. Energia berriztagarriak sartzea.</p>	<p>16 ildoa. Energia elektrikoa berriztagarriaren produkzioa bultzatzea.</p>	<p>O7: Energia berriztagarriak hedatzea eta integratzea</p> <p>O8: Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunak sustatzea, eta malgutasuna eta biltegitratzea hedatzea</p>	<p>7: energia irisgarria eta ez kutsagarria</p> <p>9: industria, berrikuntza eta azpiegitura</p> <p>12: produkzio eta kontsumo arduratsuak</p> <p>13: klimaren aldeko ekintza</p> 	<p>Autokontsumorako energia elektrikoa sortzea eta kontsumo termikoak elektrifikatzea energia berriztagarriekin</p> <p>Itsas energiak</p>
<p>Klima-aldaketarekiko erresilientzia areagotzea.</p>	<p>17 ildoa. Energia-hornidurako azpiegitura eta merkatuak ikuskatzea.</p>	-	<p>7: energia irisgarria eta ez kutsagarria</p> <p>9: industria, berrikuntza eta azpiegitura</p> 	-
<p>NEG emisioak murriztea. Energia-efizientzia hobetzea. Energia berriztagarriak sartzea.</p>	<p>18 ildoa. Energiaren teknologia-garapena bideratzea.</p>	-	<p>9: industria, berrikuntza eta azpiegitura</p> 	<p>Itsas energiak</p>

5.1 Helburuak

Ondoren, 3E2030 estrategiaren linea bakoitzaren helburuak barnean hartzen dira:

I1 ildo. Euskal industriaren energia-lehiakortasuna eta industria-jasangarritasuna hobetzea.

Helburu orokorra:

Politika energetikoak industria-sektoreko jasangarritasun energetikoaren arloan duen helburua industriaren lehiakortasuna hobetzen eta industriak dituen ingurumen-inpaktuak murrizten laguntzea da, energiaren kontsumoa murriztuz eta energia jasangarriagoen erabilera sustatuz.

Adierazleak eta helburuak 2030:

Adierazleak	2015	2025	2030
Energia-kontsumo industrialaren murrizketa joeraren araberako agertokian (tep/urte)	-	248.000	308.000
Kontsumoaren murrizketa-ehunekoa joeraren araberako agertokian (%)	-	% 10,5	% 12,9
Energia-kontsumo industrial 2015arekin alderatuta (%)	-	% -2,1	% -4,2
Baterako sorkuntzan instalatutako potentzia (MW)	416	552	558
Berriztagarrien erabilaren gehikuntza 2015arekin alderatuta (%)	-	% 52	% 66
Energia berriztagarrien kuota industrian (%)	% 6	% 9	% 10

Ekimenak eta jarduketak:

I1.1 EKIMENA. AURREZPENAREN SUSTAPENA ETA ENERGIA-ESKARIAREN KUDEAKETA INDUSTRIAN

- I1.1.1. Auditoriak, azterlanak eta kudeaketa energetikoa
- I1.1.2. Aurrezpena eta efizientzia bultzatzeko neurri berrien sektore-aplikazioko proiektu pilotuak
- I1.1.3. Energia-efizientziako inbertsioa ekipamendu eta prozesuetarako
- I1.1.4. Kontsumo energetikoen monitorizazioa eta prozesuen kontrola
- I1.1.5. ETEetan energia jasangarrian inbertitzeko zerga-pizgarriak
- I1.1.6. Euskal industriaren lehiakortasuna babestuko duen arau-esparru bat bultzatzea

I1.2 EKIMENA. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK INDUSTRIAN ERABILTZEKO BULTZADA

- I1.2.1. Energia berriztagarriak industrian erabiltzeko sustapena
- I1.2.2. Biomasa-aprobetxamendua areagotzea
- I1.2.3. Energia berriztagarrien aprobetxamendu termiko eta elektrikoa

I2 ildo. Garraio-sektorean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea

Helburu orokorra:

Garraio-sektorean energia-kontsumo eta petrolioarekiko mendekotasuna murriztea, erregai hori beste energia alternatibo batzuekin ordeztuz, airearen kalitatea hobetzen eta negutegi-efektuko gasen emisioak murrizten lagunduz.

Adierazleak eta helburuak 2030:

Adierazleak	2015	2025	2030
Errepide bidezko garraioaren energia-kontsumoaren murrizketa (tep/urte)	-	203.000	367.000
Energia-aurrezpenaren ehunekoa errepide bidezko garraioan (%)	-	% 11	% 19
Energia-alternatiboen kuota errepide bidezko garraioan (%)	% 4	% 10	% 25
Petrolioaren deribatuen murrizketa errepide bidezko garraioan 2015arekin alderatuta (%)	-	% 10	% 30

Ekimenak eta jarduketak:

I2.1 EKIMENA. MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA GARRAIOBIDE EFIZIENTEAGOEN ERABILERA SUSTATZEA

- I2.1.1. Hiri-mugikortasun jasangarriaren sustapena
- I2.1.2. Bizikletaren erabilera sustatzea garraio-bide gisa
- I2.1.3. Jarduera-zentroetarako garraio jasangarria sustatzea

I2.2 EKIMENA. IBILGAILU EFIZIENTEAGOEN ERABILERA ETA HAIEN ERABILERA EFIZIENTEA SUSTATZEA.

- I2.2.1. Auditoriak eta sistema adimendunak sustatzea garraio-flotak kudeatzeko
- I2.2.2. Kontsumo txikiagoko ibilgailuen sustapena
- I2.2.3. Ibilgailuen gidatze efizientearen sustapena

I2.3 EKIMENA. ERREGAI ETA TEKNOLOGIA ALTERNATIBOEN ERABILERA BULTZATZEA

- I2.3.1. Erregai eta teknologia alternatiboetarako trantsizioa bultzatzea flota publiko eta pribatuetan
- I2.3.2. Mugikortasun elektrikoaren sustapena
- I2.3.3. Gas naturala garraioan sartzeko bultzada
- I2.3.4. Beste erregai alternatibo batzuen bultzada

I3 ildo. Eraikinetan eta etxean kontsumoa murritzea eta berriztagarrien erabilera areagotzea.

Helburu orokorra:

Euskadiko eraikinetako energiaren erabilaren efizientzia hobetzea eta energia berriztagarrien erabilera handiagoa bultzatzea, etxebizitzetan zein zerbitzuen sektorean.

Adierazleak eta helburuak 2030:

Adierazleak	2015	2025	2030
Energia-kontsumoaren murrizketa eraikinetan (tep/urte)	-	135.000	199.000
Energia-aurrezpenaren ehunekoak eraikinetan (%)	-	% 12,1	% 17,2
Kontsumoaren murrizketa 2015arekin alderatuta (%)	-	% -3	% -5
Berriztagarrien aprobetxamendua eraikinetan	42.900	70.300	110.700
Energia berriztagarrien kuota eraikinetan (%)	% 4	% 7	% 12

Ekimenak eta jarduketak:

I3.1 EKIMENA. ENERGIA-HOBEEKUNTZEN SUSTAPENA ERAIKIN ETA ETXEBIZITZETAN.

- I3.1.1 Eraikinetako auditoria eta diagnostiko energetikoen sustapena
- I3.1.2 Eraikinetako ingurutzailerak termikoaren gaikuntzaren sustapena
- I3.1.3 Energia kontsumitzen duten ekipamenduen berriztatzea
- I3.1.4 Energia berriztagarriak eraikinetan ezartzeko bultzada

I3.2 EKIMENA. ERAIKINETAKO ENERGIAREN EFIZIENTZIARAKO ETA KUDEAKETARAKO PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

- I3.2.1 Energiaren arrazoizko erabilari eta berriztagarrien aprobetxamenduari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak
- I3.2.2 Profesionalen prestakuntza sustatzea enpresa eta erakundeetan

I1 ildo. Energia-alorrean eraginkorragoa eta jasangarriagoa izango den euskal Administrazio publiko bat sustatzea.

Helburu orokorra:

Eraikinen sektorearen kasu partikular gisa, jarduketa-ildo propiotzat hartu da administrazio publikoaren sektorea. Helburua bikoitza da: alde batetik, eraikinen energia-kontsumoa murritzea, kontsumo hori zerbitzu-sektorearen

energia-kontsumoaren zati garrantzitsua baita eta, bestetik, neurriak ezartzeko orduan Administrazio publikoaren rol eredarria sustatzea.

Adierazleak eta helburuak 2030:

Adierazleak	2015	2025
Energia-kontsumoaren murrizketa Administrazio publikoan (tep/urte) (cfe)	-	36.500
Energia-aurrezpenaren ehunekoa Administrazio publikoan (%)	-	% 25
Instalazio berriztagarriak dituzten eraikinak (%)	% 9	% 25

Ekimenak eta jarduketak:

I4.1. EKIMENA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ERAIKINETAKO ETA SUSTAPEN PUBLIKOKO ETXEBIZITZETAKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOA BULTZATZEA

I4.1.1 Energia-efizientzia eta eraikinetako energia berriztagarrien instalazioa hobetzea Eusko Jaurlaritzaren eraikin, instalazio eta ibilgailuetan.

I4.1.2 Energia-kudeaketa hobetzea euskal administrazioetan.

I4.1.3 Energia-zerbitzuetako enpresak sustatzea instalazio publikoen kudeaketarako.

I4.1.4 Administrazioen erosketa berdea bultzatzea energia kontsumoa murrizteko erreminta gisa.

I4.1.5 Sustapen publikoko etxebizitzak eraikitzea kalifikazio energetiko altuko irizpideekin.

I4.2 EKIMENA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOLABORAZIOA JASANGARRITASUN ENERGETIKOA BULTZATZEKO.

I4.2.1 Udal energia-kudeaketaren hobekuntza sustatzea.

I4.2.2 Konpromiso boluntarioak toki-administrazioekin.

I4.2.3 Jasangarritasun energetikoa beste euskal politika publiko batzuetan integratzea.

I4.2.4 Euskal administrazioen parke mugikorraren berritze jasangarriko planak.

I4.2.5 Jasangarritasun-energetikoa sustatuko duten arau- eta antolamendu-garapenak.

I1 ildo. Lehen sektorean baliabideen energia-efizientzia eta energia-aprobetxamendua sustatzea.

Helburu orokorra:

